



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 24a

72. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Saltoki handietarako zerga bat sortzeari buruzko azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legeko 3. artikulua aldatzen duena. Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldek aurkeztu dute (5. or.).
- Foru Lege proposamena, auzolana arautzen duena. Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak (6. or.).
- Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala ematekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (11. or.).
- Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako. Zuzenketak aurkezteko epea (12. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Gizarte Politiketako Departamentuaren politika orokorrari buruzkoa, pobreziaren, bazterketa sozialaren eta gizarte enplegu babestuaren alorrean, Txema Mauleón Echeverría jaunak eginga (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bat egin dezan Espainiako Gobernuak prestaturiko 2013-2016 urteetarako Ekintzailtzarako eta Gazteen Enplegurako Estrategiarekin. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 17/2012 Foru Legea bete dezan eta, horrenbestez, ez ditzan itundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe eta ikasgeletako irakaskuntzak. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak politikoki arbuiatzen du Hezkuntzako kontseilariak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren arduradun gisa dituen eginkizunetan eginiko kudeaketa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da parte har dezan Lázaro Echeverría enpresaren lan-gatazkan. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak erretira ditzala Hipotekek Kaltetutakoen Plataformako zenbait kideri jarritako zehapenak eta isunak. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroak erabateko elkartasuna erakusten duela, bere foru araubidearen bitartez, Espainiako gainerako autonomia erkidegokiko. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, “Wert legea arbuizatzeko hamar arrazo” izeneko manifestuarekin bat egitekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, “adituek” pentsioen erreformari buruz ateratako ondorioen implementazioa arbuizatzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baititu pintadak eta sistema demokratiko baten adierazpen-bideetatik eta bizikidetasun zibikotik aldentzen den edozein ekintza edo bitartekoren erabilera. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, 1.500 metro koadrotik gorako azalera duten saltokiei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak PFEZaren aitortpena dela-eta eginiko itzulketei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (22. or.).
- Galdera, PFEZaren kanpainan zergaren zenbatekoaren zati baten xedea (Eliza Katolikoa edo helburu sozialak) aukeratzekoan izandako arazoei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (22. or.).
- Galdera, jakitekoa 2013ra luzatutako aurrekontuen legeak sortutako egoerak eraginik duen Nafarroako Gobernuaren pentsiodunengan, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (23. or.).
- Galdera, Nafarroak aurten bete beharreko defizit-helburuari buruz Estatuarekin gauzatzen ari den negozio-zio-prozesuaren gainekoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (24. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena**

### ZIOEN AZALPENA

Krisialdi osoan zehar egoera horri aurre egiteko neurri batzuk abiarazi dira. Baina neurri bakar batean ere ez da inolako txostenik aurreikusitako legegintzako ekintza horiek duten gizarte-eragina neurtzeko.

Pertsona eta talde asko egoera ekonomiko eta sozial zailean daude, eta horregatik, legegintzako

edozein ekimenek haien bizi-kalitatean eragiten du.

Europar, eta are Espainian ere, funtsezko diferentziak nabaritzen ari dira krisiak duen gizarte-eraginean. Eta horrek zera frogatzen du, sektore publikoa, bere erabaki arautzaileekin, egoera ekonomikoaren ondorio sozialak zuzentzen edo azkartzen dituen faktore bat dela. Beraz, gobernuek, eta Nafarroakoak ere bai, jakina, badute jardun ahal bat, hiritarren bizi-baldintzetan eragiteko.

Oro har, eta Nafarroan ere bai, nagusitu diren politiken helburua da defizit publikoa geldiaraztea, austeritatean eta gastu publikoaren murrizketan oinarrituta. Baina horrekin batera, kontuan hartu behar da arreta txikia eman zaiola neurri horiek gizartearen izan dezaketean gizarte-eraginari. Beraz, arau-garapenarekin batera ebaluazioak aurkeztu beharko lirake indarra hartu aurretik, arauak sor ditzaketean gizarte-ondorioei buruz, erabakiak ahalik eta hobekien bideratzeko.

Gizarte-transferentziek gizartearen oro har duten eragina oso argigarria da arlo publikoak herritarrengan duen eragipena ezagutzeko, eta horrela frogatzen da 2013ko maiatzean NUPeko Berdintasuneko eta Gizarte Txertaketako Ikerketa Kate-drak egin zuen azterlanean, Nafarroako kasurako, edo Eurostatek estatu osorako egin dituen azterlan ugarietan.

Adibidez, gizarteratze errentaren gaineko legeen aldaketaren kasuan, horrekin batera komenigarria izanen zen analisi sakon bat egotea aldaketa-ekin batera, lehenagoko ereduaren onuradun izan baina sistema berritik kanpo gelditu behar ziren pertsonen kopuruari buruz, aldaketak ekarriko zituen gizarte-ondorioen jakitun izateko.

Beraz, Nafarroako legeak onetsi aurretik nahitaez gizarte-eraginari buruzko txosten bat izateko araua ezartzeak hobe gidatuko du legegintzako jarduketara gizarte-kohesioaren eta aukera berdintasunaren aldera. Eta xede hori bilatu da arau-gara-

penetan genero-eraginari buruzko txostenak ematearen derrigorrezkotasuna ezarri denean.

Horiek horrela, era sistematikoan prozesu bat ezarri behar da, arauak eta politikak gure gizarte-ko sektore ahulenengan eta gizarte-koheren izan ditzaketen eragin positiboak eta negatiboak ebaluatzeko. Txosten horrek bidea ematen du ikerketa eta politikak burutzerakoan kontuan hartzeko gizarte-errealitateak, bizi-baldintzak eta inguruabar ekonomikoak.

Analisirako tresna horrek aukera informatu eta ekitatiboak eskaintzen dizkie legegileari eta gainerako botere publikoei, jakiteko arauak eta politikak bideratuta ote dauden aukera-berdintasuna, gizarte-koheren eta herritarren ongizatea ahalik eta gehien bermatzera, betebeharrak publikoak baita.

**Artikulu bakarra.** 62. artikulua aldatzen da, epigrafe berri bat gehituta. Hona testu berria:

“62. artikulua. Txostenak eta irizpenak.

1. Erregelamenduzko xedapenen proiektuekin batera, txosten bana bidali beharko da, kasuko proiektuan ezartzen diren neurriek sexuaren arabera duten eraginari buruzkoa.

2. Halaber, erregelamenduzko xedapenen proiektuekin batera, txosten bat bidali beharko da,

proiektu bakoitzean ezartzen diren neurriek duten gizarte-eraginari buruzkoa. Kontuan hartuko dituzten gaiak, besteak beste, neurri horiek ukitutako gizarte taldeak dira.

3. Halaber, eskumena duen Departamentuko Idazkaritza Nagusi Teknikoaren txostena eduki beharko dute, alde aurretik. Txostenak, gutxienez ere, honako hauek jorratuko ditu: erabilitako prozeduraren zuzentasuna eta proposatutako araua antolamendu juridikoari egokitzea.

4. Nafarroako Kontseiluari kontsulta egin beharko zaio, hura arautzen duten legeetan aurreikusten diren kasuetan”

**Xedapen gehigarria.** Legegintzako xedapenek duten gizarte-eragina ebaluatzeko gidaliburua prestatzea.

Hiru hilabeteko epean gidaliburu bat prestatuko da, legegintzako xedapenek duten gizarte-eragina hobeki ebaluatzeko; gidaliburua Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko zaio.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

## **Foru Lege proposamena, Saltoki handietarako zerga bat sortzeari buruzko azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legeko 3. artikulua aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute Saltoki handietarako zerga bat sortzeari buruzko azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legeko 3. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Saltoki handietarako zerga bat sortzeari buruzko azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legeko 3. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeinak bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Saltoki handietarako zerga bat sortzeari buruzko azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legeko 3. artikulua aldatzen duena**

### ZIOEN AZALPENEA

Saltoki handietarako zerga bat sortzeari buruzko azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legeak ibilaldi gorabeheratsua izan zuen: Nafarroako Parlatuentuak onetsi ondoren, José María Aznar lehendakari zuen gobernu espainiarrak errekurritu zuen, eta horren ondorioz hamar urte baino beranduago aplikatu da legea. Eta orain 3. artikulua testua doitzeko beharra egiaztatu da, bermatu ahal izateko zuzeneko modu eraginkorrez lotzen direla zerga horren bidez bildutakoa eta hura erabiltzea gure herrietako merkataritza txikia mantendu eta garatu nahi duten programak burutzeko, bereziki merkataritza txikiak jaso baitu krisiaren kolpea, eta zuzenean eragiten baitio saltoki handien ugaltzeak.

**Artikulu bakarra.** Aldatu egiten da azaroaren 27ko 23/2001 Foru Legearen 3. artikulua. Honela gelditzen da:

“3. artikulua. Zerga honen bidez lorturiko diru-sarrerak lotuak egonen dira hiriguneetako lehengoratzeta eta hirugarren sektoreko jarduerak sustatzea xedetzat duten jarduketa-programen prestaketa eta exekuzioa ordaintzera.

**Xedapen gehigarria.** Indarra hartzea.

Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean edo Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsi eta hamabost eguneko epean.

## Foru Lege proposamena, auzolana arautzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak auzolana arautzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin auzolana arautzen duena Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### Auzolana arautzen duen Foru Lege proposamena

#### ZIOEN AZALPENA

Auzolana Euskal Herri osoko eta bereziki Nafarroako instituzio juridiko-historikoa da. Araban vereda deitzen zaio, Erriberan auzalán eta artelán, Aragoiñ andalán izenarekin ezagutu izan da, eta lege testuetan trabajo vecinal edo prestación personal deitzen zaio.

Antzinakoa edo historikoa ez ezik, gaur egun ere udalerrri eta kontzeju askotan erabilia izaten jarraitzen du auzolanak; inoiz, gainera, indar eta atxikimendu handiz.

Instituzio juridikoa izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen ditu auzolanak: a) eremu bateko gizarte osoari dagokion jarduna da; b) batzarrak edo agintariak erabaki eta deitua izaten da; c) jabari publikoko ondasunak, komunalak edo publikoak, eraiki, konpondu, hobetu eta mantentzeko da; d) betebeharrak eratzen du; e) betebeharrak hori ez egiteak isuna ekar lezake, ala, aitzitik, zerga batzuen murriztapena nahiz salbuespena, kasu zehatzetan.

Auzolanak badauzka, gainera, beste hiru ezauzgarri: f) doan edo saririk gabe egiten den lan ekar-

pena da; g) agintariak –edo batzarrek– antolatzen, zuzentzen eta bitartekoz hornitzen duen lan eginkizuna da; h) inoiz udalerriko edo kontzeju edo mankomunitateko auzo edo leku zehatz batekoei dagokie.

Auzolanak oso garapen tipia eduki du, ezereza ez esateagatik, Euskal Herriko zuzenbide idatzian. Soilik aipamen bana ditu toki entitateei buruzko Nafarroako eta Arabako arauetan. Aipamen horietan, gainera, auzolana nekazaritzagiroko herri ttipietako bizimoduari lotzen zaio, batzuetan bere ohiturazko izaera urratuz. Aipamen horiek erabilia taxutu izan dira, betiere, udalerrri eta toki entitate batzuetako ordenantzak edo arauak.

Auzolana, beraz, instituzio juridiko gisa, ohituraren oinarritu izan da batik bat. Egia da Nafarroako Foru Berrian ohitura dela lehenengo betebeharrak legearen beraren eta zuzenbidearen printzipio orokorren gaineratik (Foru Berriko 2. legea). Baina ohituraren lehentasun hori guztiz teorikoa da, zeren eta ohiturak, ez daudenez gero idatzirik, frogatu egin behar dira, eta une horretantxe gelditzen da hutsaldurik euren teoriarazko lehentasuna. Egia da, baita ere, Nafarroako Foru Berrian akordioa legearen gaineratik ipintzen dela betebeharrak iturrietan (paramiento fuero vienze, Foru Berriko 7. legea). Berdintsu gertatzen da auzolanarekin harreman estua duen batzarraren instituzioarekin: bere eragin legala, bereziki, biztanle kopuru ttipiko kontzejuetara mugaturik dago. Azken finean, bizimodu modernoaren ezaugarrietako bat gauzak idatziz jartzearena da eta bestea, berriz, harremanak modu askotarikoak eta mugarik gabekoak izatearena. Horregatik, zaharkiturik gelditu dira bizimodu modernoan ohitura soilan eta hitzezko itunetan oinarritutako harremanak. Ezinbestekoa da auzolana behar bezala arautzea, gaur egungo bizimodura egokitu eta irautea nahi baldin bada.

Estatuko zuzenbidean, 1877ko Udalerrien Legearen 79. artikuluan lehenbizi, eta gero Primo de Riveraren diktaturako garaiko 1924ko Udalerrien Estatutuko 524 artikuluan, trabajo vecinal izenarekin aipatzen da laburki. Azken estatutu horretatik jaso zuen aipamena 1925ko Nafarroako Udal Administrazioarentzako Erreglamenduak, eta arau hau indarrean egon da Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea promulgatu arte.

Zenbait auzi ere izan dira; esate baterako, E. Mitxelorenak Auzolanaren kultura liburuan aipatzen duena, Garmendiarengandik jasota. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoak egi-

nak ditu auzolan edo Arabako vereda delakoari buruzko azterketa zehatzak; adibidez, 2011ko otsailaren 10eko edo 2011ko abenduaren 13ko ebazpenetan.

Lege-arautzeari dagokionez, kontuan izatekoa dira aurrekari edo konparaketa moduan Arabako Biltzar Nagusien martxoaren 20ko 11/1995 Foru Araua (44. artikulua) edo abenduaren 20ko 15/2010 Foru Araua, bai eta Arabako Foru Aldundiaren azaroaren 23ko 71/2011 Foru Dekretua ere.

Nafarroako legedi publikoan, auzolanari buruzko aipamen labur bezain partziala aurki dezakegu; hain zuzen ere, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 53. eta 54. artikuluetan, I. tituluko "Tributuz besteko baliabideak" izenburuko kapituluaren zehazki. Arautze honek antzinako eta herri ttipietako egoeretara mugatzen du bortizki auzolanaren erabilera.

Bestalde, auzolanak jabari publikoko ondasunekin eta bereziki ondasun komunalekin harreman berezia sustatu du historikoki. Auzolanaren bitartez eraiki, mantendu eta hobetu izan dira mende eta mendeetan zehar ondasun komunalak. Esan liteke ondasun komunalak eta auzolana, hein batean, errealitate beraren bi aldeak direla. Alde batetik, komunalak herritarren edo zehazkiago etxe edo su bakoitzaren ohiko eskubideak edo "aktiboak" ziren; beste aldetik, berriz, auzolana, herritar, edo zehazkiago etxe edo su bakoitzari zegokien betekizuna.

Gaur egun, auzolanaren erronka eta aldi berean gizarte modernoaren premia bategin litezke, auzolana hiri barruko zereginetara hurbilduz, batez ere ondare publikoaren eta ingurumenaren zaintzan, baldin eta lan harremanak eta inbertsio publikoak ezin badira iritsi hobi horiek betetzera.

Izan ere, erakunde publikoek ingurumenari dagozkion lan eta zeregin asko ordaintzeko ez daukate bitartekorik edo hornidurarik, eta, arlo horretan, auzolanaren ekarpena garrantzitsua gerta liteke. Beraz, auzolana lege mailan arautzea eta taxutzea onura handikoa bilaka liteke ingurumenaren —eta horri lotutuako ongizatearen— ondare publikoa mantentzeko eta hobetzeko. Kontuan izan behar da, adibidez, oihanak, basoak, zuhaitzak eta txarak gero eta zikinagoak daudela, landa-herri ttipietan gero eta jende gutxiago bizi dela, eta larre-abere kopurua murrizten eta gutxitzen ari dela etengabe.

Bestalde auzolanak zerikusia eduki lezake hala Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearekin, nola ondasun komunalen legediarekin. Bigarren atal horri dagokionez, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearekin eta Komunalei buruzko 6/1986 Foru Legearekin izan

lezake zerikusia, bai eta, ongizatearen arloan, lan boluntarioaren legediarekin ere, bereziki Nafarroako 2/1998 Foru Legearekin.

Auzolana, berez, jabari publikoko ondasunen alde doan egiten den lan ekarpena da, udal edo toki entitateak deiturik. Nahiz eta doaneko ekarpena den, auzolanak ohikoa izan du ondorio ekonomiko batzuk edukitzea. Inoiz, esate baterako, isuna jasan behar izatea lan ekarpenaren betekizuna ez egiteagatik, eta hala ezarri baldin bada udal ordenantzan edo auzolanerako deirako akordioan; isuna ez zaio beti gizabanakoari ezartzen, baizik etxeari edo sendiari (garai batean, etxeari edo "suari" esaten zen), etxea edo sendia izan ohi zelako komunalen eta ondare publikoaren onuraduna, adibidez alor, larre edo egur banaketetan. Beste batzuetan, historian zehar, zerga, tasa edo bestelako sari zehatz batzuen ordezkotzat (kanonak eta abar) hartu izan da auzolaneko ekarpena.

Gaur egun, udalen isun horiek lege mailako babes edo oinarri legala beharko lukete, eta zerga eta bestelako ordaintza publikoen ordezkotzat ere lege mailako arauketa eskatzen du.

Laburbilduz, esan genezake auzolanak, zeinak oraindik udalerrri eta kontzeju batzuetan indarrean jarraitzen duen jabari publikoko ondarearen zaintzarako, ziurtasun juridikoa, ikuspegi orokorra eta arautze maila legala eskaten duela; behintzat, hiriko gizartean eta ingurumenaren zaintza-zereginetan sartzeko aukerari aurre eginen bazaio. Hori da Auzolana Arautzen duen Foru Lege honen xedea.

Gaizto egina beharko lirateke auzolanak instituzio antropologikoa den heinean sortzen dituen jakin-mina eta miresmena, baita ikerketa etnologikoen maila ere, gaizto egina beharko litzatekeen bezala soilik udalerrri eta kontzejuetan erabiltzeko ohitura.

Gogoratu beharra dago auzolana, nahiz eta XXI. mendeko gizarte-harreman askok duen ereduaren aurrekaria izan litekeen, ez dela behar bezala garatu. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 53. eta 54. artikuluetako aipamen labur hori oinarri hartuta, Nafarroako zenbait udal, kontzeju eta mankomunitatetan udal ordenantzak egin dira.

Ordenantza horien edukiak, ordea, lege babes eskasegia dauka; esate baterako, honakoei dago-kienz: auzolana ez betetzeagatik ipinitako isun ekonomikoak, laneko aseguru gorabeherak, edo hirian eta zeregin berrietarako sartu eta ezartzeko ahalegina.

Beraz, Auzolanari buruzko Foru Legea beharrezkoa da arrazoi askorengatik:

1. Auzolanaren orain arteko jardunari ziurtasun juridikoa eman ahal dakion.

2. Udal eta toki entitateek beren auzolanari buruzko ordenantza, arau eta erabakietarako babes eta oinarri juridiko sendoa eduki dezaten.

3. Bizimodu modernoaren premiei erantzuna emateko gai bilaka dadin auzolana. Horrela, ondasun publikoen eraikuntzan eta zaintzan ez ezik, ingurumenaren kudeketan erabilia izatea bideragarri egin dezan legeak; betiere, lantegiak eta lanpostuak sortzeari inolako trabarik egin gabe, eta soilik, beraz, lan-merkatua irits ez litekeen arlo eta eremuetan.

4. Auzolana, zehazki, hiriko eremu, orube eta arloetan garatu ahal izan dadin, bai eta mankomunitate, fazeria eta eskualdeetan ere. Laburbilduz, garai berrietan eta denbora modernoetan lan-merkatuak erantzun ez dezakeen tokietara irits dadin; adibidez, hirietako ibaiak, parke urrunak, bidezidorrak, iturriak, zuhaitziak, baratzeak, jardinak eta abar zaintzeko bide moduan.

5. Dagokien kasuetan, auzolanaren bidez zerga zehatz batzuen ordezpena arautzeko; zehazki, ondasun higiezinaren gaineko zerga, osoa edo zati bat.

6. Ondasun publikoen eraikuntza eta zaintza bideragarria egiteko, eta, horretarako ez ezik, ingurumenaren kudeketarako, lan-merkatuak ezin duen arloetarakoa.

7. Auzolanean jarduten dutenen aseguruak, hala pribatuak nola publikoak, arautu ahal izateko bideak ireki ahal izateko. Arlo honetan, gogoan izan beharrezkoa da jabari publikoko ondasunak, bereziki komunalak, ez direla zehazki udalaren, kontzejuaren edo haranaren jabetzakoak; aitzitik, herritarrenak dira. Ondorioz, auzolanean ari dena ez da beste inorentzat ari lanean, baizik bere buruarantzat. Beraz, beharrezkoa da aurreikuspenak egitea, eta bitartekoak sortzea, norberarentzat edo autonomo moduan asegurua egiteko bideak behar bezala antolatu ahal izateko.

Laburbilduz, esan liteke auzolanak, antzinako elkarlanaren eredu, tokia eskatzen duela gaur egungo bizimodu digitalizatuan. Ez bakarrik Nafarroan, jakina. Gero eta argiago dagoena da ingurumenarekin eta hiriko mantentze-lanekin zerikusia duten hainbat eta hainbat zereginak, lan-merkatuan ez baitaude, auzolana beharko dutela. Eta hemen, Nafarroan, inon baino hobeki mantendu izan denez gero auzolanaren erabilera eta onarpe-

na, lehen lerroko betebeharra dugu auzolanari ezinbestekoak zaizkion aterabideak ematea.

Bestalde, gaur egun ezinbestekoa da, edonola-ko lantegi taxutzen delarik, segurtasun-plana aurrikustea, hirugarrenen edo partaideen arriskuak estaltzea, eta, halaber, Gizarte Segurantzaren estaldura izatea. Aurrekariak izan badira aipatu hiru arloetan; bereziki aipa liteke Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian dauden laneguneko aseguruak.

Aipamen berezia behar du zerga, tasa edo prezio publikoen murriztapenak nahiz salbuespenak. Kontribuzioak, tasak eta kanonak maiz izaten dira erabilera batzuen zor zehatzak. Belar-sariak, lurkanonak, eta egurra, zura eta abar aprobetxatzeagatik ordainketak lotuak egoten dira ingurua- ren mantentzearekin. Bestalde, auzolanak behar dituen makinak, garraiobideak eta abar ekartzeak ordaindua izan behar du, betiere merkatuak markatzen duen neurri edo balioan.

Azken finean, ingurumena eta, oro har, ondasun publikoak ongi zaintzeko modurik egokiena gizartearen eta herritarren atximendua lortzea izaten da, eta helburu hori beste inola baino hobeki eskura liteke auzolanaren bitartez. Lana munduan izan bada, nahiz eta askotan lan-merkatuko ildotatik at. Etorkizuneko belaunaldiek jaso beharko luketen eta jasotzeko eskubidea duten ingurumenak ardura eta erantzunkizuna ez ezik, ausardia, egunaratzea eta eraberritzea eskatzen digute. Horiexek dira Auzolanari buruzko Foru Lege proposamen honen asmoak.

## I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Auzolanaren mugaketa.

1. Auzolana herritarren beren izenean eta sendi, etxe edo suaren ordezkari moduan herriaren ondare publikoari egiten dion doaneko lan ekarpena da, agintari, batzar edo arduradunek deiturik egina.

2. Foru lege honi dagokionez, ondasun komunalak, eta oro har jabari publikoko ondasunak, ez dira zehazki udalen edo toki entitateen jabetzakoak, baizik herritarrentzat eta beren onurarako edo beraiek erabiltzeko daudenak. Auzolana, berez, jabari publikoko ondasunen gaineko eskubideari dagokion betebeharra da; hau da, herritarren, etxeak edo suak ondasun publikoetan dituen eskubideengatik egin behar den ekarpena.

### 2. artikulua. Auzolanaren izaera.

1. Auzolanaren izaeran hurrengo osagarriak daude:



a) Lan ekarpena da. Inoiz lan ekarpen hori egiteko lanabesak edo makinak edo animaliak edo garraiorako bitartekoak gehi litezke.

b) Auzolana herriko sendi, etxe edo su bakoitzari dagokio. Inoiz zilegia izan liteke ordezpena.

c) Doan egiten den lan ekarpena da; beraz, inolako lansaririk gabeko ekarpena da.

d) Laneko gastuak, otorduak, laneko segurtasuna eta aseguruak, bai publikoak bai pribatuak, erakunde deitzaileari dagozkio.

2. Auzolanak ez du lan-harremanik sortzen ezta merkataritzakorik ere. Auzolana da norberak jabari publikoko ondasunekiko dituen eskubide eta onurei horiek zainduz erantzutea, gizarteko kide den heinean; auzolana egituratzen da, beraz, lana komunean jartzen duten autonomoen gisara.

### 3. artikulua. Xedea.

1. Auzolanaren xedea bi dira:

a) Jabari publikoko ondarea, eta bereziki ondasun komunak, sortu, eraiki, mantendu, hobetu eta egokitzea.

b) Ingurumena eta ondasun publikoak zaintzea eta hobetzea.

2. Gaur egungo bizimodu modernoan, auzolanaren xedetzat ipini behar da hiriko bizimoduan erabili ahal izateko baldintzak sortzea, eta, bereziki, lan-merkatuak eta diru-hornidura publiko eskasak bete ezin dituzten gizarteko zereginetarako erabiltzea.

## II. KAPITULUA Auzolanaren gauzatzea

### 4. artikulua. Deia.

1. Auzolanera deitzeko eskubidea eta betekizuna jabari publikoko ondarearen ardura duen erakundeari dagokio; izan udala, udal batasuna edo mankomunitatea, kontzejua, auzoa, fazeria, edo izan bestelako toki entitate bat. Deitzailea, inoiz, izan liteke herri batzarra, auzo batzarra edo bestelako entitate bateko batzarra.

2. Auzolanerako deian, egiten den modura egiten dela (bandoa, gutuna, eta abar) zehaztu behar da nahitaez nork duen joateko betebeharra, zein diren egitekoak, noiz eta nola egingo diren, eta, batez ere, segurtasun-neurriez nor arduratuko den eta horiek nola bermatuko diren.

5. artikulua. Auzolanerako betebeharra eta betebeharrak gainetik ekarpenak.

1. Auzolanaren ekarpena betetzea herritarrei dagokie, betiere auzolanaren eremuko etxe, sendi

edo su bakoitzaren arabera; esan nahi baita jabari publikoko ondasunen edo komunalen onuren arabera behar duela auzolanaren lan ekarpenak.

2. Etxeak edo norbanakoak egin beharrekoaren gainetik norbaitek lanabesak, tresnak, materialak, erregaiak, garraiobideak edo lanorduak jartzen baditu erakunde deitzaileak hala eskatuta, dago-kion murriztapen- nahiz salbuespen-eskubidea edukiko du sari zuzenetan, edo, ondoren arautzen den modura, zerga, tasa edo prezio publikoetan.

6. artikulua. Isun ekonomikoak, kalte-ordain moduan.

1. Auzolana betebeharra den heinean, erakunde deitzaileak isun ekonomikoa ezar liezaioke betebehara hori betetzen ez duenari.

2. Toki entitatearen ordenantzaz zehaztu behar dira isunaren baldintzak, bai eta zenbatekoa ere; zenbateko horrek izan behar du langile batek lanegun bakoitzeko duen sari arruntaren parekoa. Isun hau kalte-ordaintzat hartuko da.

7. artikulua. Auzolanaren bitartez, zerga, tasa edo prezio publikoak ordeztzea.

1. Auzolanak zerga ordainketa ordeztu lezake hurrengo baldintza, neurri eta mailetan:

a) Soilik auzolanaren betebeharra betetzeaz gainera egindako ekarpenek, hau da 5.2 artikuluan zehaztuaren arabera egindakoek, emanen dute zerga-murrizketarako nahiz -salbuespenerako eskubidea.

b) Soilik kontribuzioa izanen da auzolaneko ekarpen bereziaren truke murriztu edo salbuetsi ahal izanen dena.

c) Soilik dagokion urteko zergak murriztu edo salbuetsi ahal dira.

d) Auzolanerako ekarpen berezi hauen balio-maila merkatukoa izanen da beti.

Auzolanaren bidez egindako zerga-likidazioa baliagarri izatekotan, erakunde deitzaileak zehazki arautua eduki behar du aukera hori, alde aurretik onartutako auzolanari buruzko ordenantzaz.

2. Tasa edo prezio publikoen ordainketatzat hartuak izatekotan auzolanerako ekarpenak, aurreko baldintza guztiak bete behar dituzte, eta ekarpena egin duenak, gainera, kontzeptu horien zordun izan behar du.

### III. KAPITULUA

#### Entitate deitzailearen zereginak

**8. artikulua.** Laneko segurtasuna eta aseguru-estaldura.

Auzolanerako deia egiten duen erakunde deitzaileari zeregin hauek dagozkie:

a) Laneko segurtasun neurrien plan bat onartzea auzolana deitu aurretik.

b) Aseguru pribatu batekin, mutua batekin edo, kasua bada, aseguru-korporazio batekin, hirugarrenen arriskuak estaltzeko hitzarmena ituntzea.

c) Nafarroako Gobernuak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin gero aipatuko den auzolaneko hitzarmen berezia sinatzen duenetik aurrera, auzolanean jarduten dutenei nekazaritzako erregimen berezian sarbidea ematea, baldin eta pentsiodunak ez badira.

d) Lan jardunerako jarri beharreko bitartekoez eta lan beharreko gastuez arduratzea: otorduak, tresneria, makinak, materialak, erregaiak, eta abar.

e) Auzolanaren zeregina, eguna eta bestelako zertzeladak erabakitzea, eta deialdia egitea.

f) Auzolana gidatzea, zuzentzea, arautzea eta etenak nahiz amaia erabakitzea.

**9. artikulua.** Auzolanaren gauzatzea eta kudeaketa.

1. Auzolana erakunde deitzaileak ezarritako lan-planaren arabera gauzatuko da, elkarlanean. Elkarlana edo kogestioa berezkoa du auzolanak; besteak beste, parte hartzen dutenak ez direlako onuradun bakarrak.

2. Auzolaneko etenak eta amaia deitzaileak ezarritako lan-planaren arabera egiten dira, eta parte hartzen duten guztiak behartuta daude laneko segurtasun-plana eta segurtasun-neurriak betetzera.

### IV. KAPITULUA

#### Entitate deitzaileen ordenantzen egokitzapena

**10. artikulua.** Auzolanari buruzko ordenantzen egokitzapena.

Auzolana Arautzen duen Foru Lege honetan ezarritakoari egokitu beharko zaizkio udalen edo

bestelako toki entitateen auzolanari buruzko ordenantzak. Ordenantza horietan taxutu eta gartu beharko dira lege honek arautzen dituen gaiak eta, hala dagokionean, delako toki entitateen ohi-turazkoak diren jokamoldeak.

#### Lehenengo xedapen iragankorra.

Nafarroako Gobernuak sei hilabeteko epean emanen ditu Auzolana Arautzen duen Foru Legea garatzeko beharrezkoak diren aginduak, ebazpenak eta izapideak.

Zehazki, Nafarroako Gobernuak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari protokolo bat sinatzeko eskaria luzatuko dio, non aurreikusiko den auzolanean jarduten dutenak, baldin eta pentsiodunak ez badira, nekazaritzako erregimen bereziko lanegunen eredian sarbidea eman ahal izateko aukera.

#### Bigarren xedapen iragankorra.

Toki entitateetan orain arte indarrean dauden ordenantzak sei hilabeteko epean egokitu beharko zaizkio lege honen edukari.

Behar bezala onartu eta egokitu beharko dira kasuan kasuko ordenantzak, auzolanerako deia foru lege honetan ezarritakoaren arabera egin ahal izateko.

#### Hirugarren xedapen iragankorra.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 5.1.a)6. artikuluari hurrengo idazkera ematen zaio:

“6. Bestelako prestazioak. Auzolanekoak dagoen foru legearen eta toki entitatearen ordenantzen arabera gauzatuko dira.”

#### Xedapen indargabetzailea.

Indargabetuta gelditzen dira Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 53., 54. eta 55. artikulua.

Indargabetuta gelditzen dira, halaber, lege honen edukaren kontrako maila bereko edo ttipiagoko lege eta bestelako dekretu, agindu eta ebazpen guztiak.

#### Azken xedapena.

Auzolana Arautzen duen Foru Legeak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunen hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala ematekoa.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko ekainaren 13an egindako Osoko Bilkuran, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain morala emateko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko apirilaren 29ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.** 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta haiei ordain

morala emateko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Bartzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko irailaren 17ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.**

**ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko ekainaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki Foru Lege proposamen hau aintzat hartzea "Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako". Proposamen hori Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu eta 2013ko maiatzaren 13ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111. eta 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

1. Xedatzea aipatu Foru Lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun baliouduneko epea hasiko da eta 2013ko irailaren 6ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Jabeldura, Gizarte Politiketako Departamentuaren politika orokorrari buruzkoa, pobrezia-aren, bazterketa sozialaren eta gizarte enplegu babestuaren alorrean.**

*TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkezturiko jabeldura, Gizarte Politiketako Departamentuaren politika orokorrari buruzkoa, pobrezia-aren, bazterketa sozialaren eta gizarte enplegu babestuaren alorrean.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**JABELDURAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko parlamentari Txema Mauleónek, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Gizarte Politiketako kontseilariarentzako jabeldura hau aurkeztu du, Eledunen Batzarrean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gizarte Politiketako Departamentuak pobrezia-aren, bazterketa sozialaren eta gizarte enplegu babestuaren alorrean duen politika orokorrari buruzko jabeldura.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bat egin dezan Espainiako Gobernuak prestaturiko 2013-2016 urteetarako Ekintzailtzarako eta Gazteen Enplegurako Estrategiarekin.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen baitu bat egin dezan Espainiako Gobernuak prestaturiko 2013-2016 urteetarako Ekintzailtzarako eta Gazteen Enplegurako Estrategiarekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, 2013-2016 urteetarako Ekintzailtzarako eta Gazteen Enplegurako Estrategia babesteari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

### Zioen azalpena

Gazteen langabezia egiturazko arazoa da Espainian, krisiaren eraginez larriagotu egin dena eta gazte espainiarren egungo eta etorkizuneko egoerarentzat ondorio txarrak ekartzeaz gain, epe luzera mugatu egiten duena Espainiako ekonomia-aren hazkunde potentziala.

2013ko lehenbiziko hiru hilabeteetan, Espainiako 25 urtez beherakoen langabezia tasa % 57,2koa zen; EB-27koa, berriz, % 23koa zen. Gure erkidegoan, langabezia tasa % 43,59koa zen 2013ren hasieran. Gazteen artean langabezia tasa txikiena duten Europako herrialdeak hauek dira: Alemania (% 7,7), Austria (% 8,9) eta Holanda (% 10,4).

Espainiako Gobernuak onetsi duen 2013-2016 urteetarako Ekintzailtzarako eta Gazteen Enplegurako Estrategia kokatzen da PPK gazteen langabezia murrizteko neurriak sustatzeko duen helburuan, bai besteren konturako laneratzearen bidez bai autoenpleguaren eta ekintzailtzaren bidez murriztu ere.

Aipatu estrategia da gizarte-solaskideekiko elkarrizketa eta parte-hartze prozesu baten emaitza, eta Europar Batzordeak gazteen enpleguaren arloan eginiko gomendioei erantzuten die.

Estrategian aurreikusitako jarduketak, oro har, 30 urtez beherako gazteei zuzenduta daude; bereziki, langabezian daudenei. Ezgaitasunen duten pertsonen kasuan, % 33ko edo gradu horretatik

gaineko ezgaitasuna aitorturik dutenentzat, adin-muga bost urte igotzen da.

Aurrekontu-zuzkidurari dagokionez, 3.485 milioiko baliabide ekonomiko berriak aurreikusten dira Estrategiaren xedeak lortzeko eta bertan jasotako neurri berriak implementatzeko.

Bereziki, talka-neurri berriek 1.750 milioitik gorako eragin ekonomikoa izanen dute Estrategia garatuko den lau urteetan; horietatik, % 40 kontratazioarako pizgarrietara bideratuko dira,

% 38a autoenpleguari eta ekintzailtzari buruzko neurrietara, eta % 22, berriz, prestakuntzara eta bitartekaritzaren hobekuntzara.

Hala ere, zenbateko horiek hasierako ekarpena dira, neurriak abian jartzekoa, eta horri gehitu beharko litzaizkioke, kasua balitz, administrazio publiko eskudunek aurrekontuetan jartzen dituzten kopuruak, baita atxikitzen diren enpresek Estrategiaren indarraldian egiten duten gastua ere.

Estrategiak "atxikitzeko" aukera aurreikusten du, eta aukera hori irekita dago eragile sozial, autonomia erkidego, toki entitate, enpresa publiko nahiz pribatu eta gazteei kontratazioaren edo ekintzailtzaren bidetik lan merkaturako sarbidea erraztea ekarriko duten jarduketak abian jartzen dituzten erakunde guztientzat.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiazten du:

1. Bat egin dezan Espainiako Gobernuak presaturiko 2013-2016 urteetarako Ekintzailtzarako eta Gazteen Enplegurako Estrategiarekin.

2. Estrategia horretako neurriak jasotzea etorkizunean gazteen enpleguaren arloan abian jartzen dituen jarduketetan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 17/2012 Foru Legea bete dezan eta, horrenbestez, ez ditzan itundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe eta ikasgeletako irakaskuntzak.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 17/2012 Foru Legea bete dezan eta, horrenbestez, ez ditzan itundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe eta ikasgeletako irakaskuntzak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena:

Urriaren 19ko 17/2012 Foru Legeak ezartzen du foru lege hori argitaratzen denetik ezin izanen dela itunik egin ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeekin.

Legeak xedatzen duenez, “ezin izanen dute egin itunik sexu bakar bateko ikasleak soilik onartzen dituzten ikastetxeek, edo sexuaren arabera bereizitako taldeetan irakasten dutenek, edo modu batera edo bestera baterako hezkuntzaren printzipioa aplikatzen ez dutenek.”

Halaber, hau ere esaten du: “Edonola ere, Nafarroako Gobernuak, modu arrazoituan, erabaki dezake aurreko idatz-zatiek hizpide dituzten itunak luzatzea, bermatzeko -hori izanen du ondorio

bakarra- orain ikastetxeotan matrikulatuta dauden ikasleek bertan jarraitu ahal izanen dutela, ikasten ari diren derrigorrezko hezkuntza etapak amaitu arte.”

Horrenbestez, foru legea indarrean sartu zen unean itun indardunak zituzten ikastetxeetan matrikulatuta dauden ikasleek itun araubidean amaitu ahalko lukete, Gobernuak hala ezarriko balu, egiten ari diren hezkuntza-etapa, baina ikasle matrikulatu berriei aplikatzekoa zaie foru legea, eta horrenbestez, ez dute itunaren babesik.

Hezkuntzako kontseilariak, 2012-13 ikasturtean eta hurrengoetan lege honek izanen duen aplikazio-graduari buruz parlamentu-talde honek eginiko galdera bati erantzutean, legearen interpretazio erabat interesatua egin zuen, eta esan zuen Hezkuntza Departamentuak itunak mantenduko dituela, ikastetxe horiekin sinatutako hitzarmenak mantentzen dituelako, lau urteko iraupena dutenez, eta iradoki zuen, halaber, itundutako unitateak zabaldu ere egin litezkeela, eta, edonola ere, bertan behera utz litezkeen hitzarmenak luzatu ere egin ahal liratekeela.

Hori urriaren 19ko 17/2012 Foru Legearen urraketa agerikoa litzateke; izan ere, Nafarroako Gobernuak erabat saihesten du xedapen bat, zeinaren bidez itunak aldatu egin beharko bailirateke foru legea indarrean sartzean, foru legean ezarritakora egokitze aldera.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 17/2012 Foru Legea bete dezan eta, horrenbestez, ez ditzan itundu, 2013-2014 ikasturtetik aurrera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe eta ikasgeletako irakaskuntzak, eta, horrenbestez, ukitutako ikastetxeekiko itunak alda ditzan, lege horrek xedatzen duen moduan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak politikoki arbuiazen du Hezkuntzako kontseilariak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren arduradun gisa dituen eginkizunetan eginiko kudeaketa.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak politikoki arbuiazen baitu Hezkuntzako kontseilariak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren arduradun gisa dituen eginkizunetan eginiko kudeaketa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Urriaren 19ko 17/2012 Foru Legeak ezartzen du foru lege hori argitaratzen denetik ezin izanen dela itunik egin ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeekin.

Legeak xedatzen duenez, “ezin izanen dute egin itunik sexu bakar bateko ikasleak soilik onartzen dituzten ikastetxeek, edo sexuaren arabera bereizitako taldeetan irakasten dutenek, edo modu batera edo bestera baterako hezkuntzaren printzipioa aplikatzen ez dutenek.”

Halaber, hau ere esaten du: “Edonola ere, Nafarroako Gobernuak, modu arrazoituan, erabaki dezake aurreko idatz-zatiek hizpide dituzten itunak luzatzea, bermatzeko -hori izanen du ondorio bakarra- orain ikastetxeotan matrikulatuta dauden ikasleek bertan jarraitu ahal izanen dutela, ikasten ari diren derrigorrezko hezkuntza etapak amaitu arte.”

Horrek esan nahi du foru legea indarrean sartu zen unean itun indardunak zituzten ikastetxeetan matrikulatuta dauden ikasleek hezkuntza-etapa

amai dezaketela itunpeko araubidean, baina ikasle matrikulatu berriei foru legea aplikatzekoa zaie, eta, horrenbestez, horiek ez dute itunaren babesik.

Hezkuntzako kontseilariak, 2012-13 ikasturtean eta hurrengoetan lege honek izanen duen aplikazio-graduari buruz parlamentu-talde honek eginiko galdera bati erantzutean, legearen interpretazio erabat interesatua egin zuen eta esan zuen Hezkuntza Departamentuak itunak mantenduko dituela, ikastetxe horiekin sinatutako hitzarmenak mantentzen dituelako, eta horiek lau urteko iraupena dute. Gainera, iradoki zuen itundutako unitateak zabaldu ere egin litezkeela, eta, edonola ere, bertan behera utz litezkeen hitzarmenak luzatu ere egin ahal litezkeela.

Hori urriaren 19ko 17/2012 Foru Legearen urraketa agerikoa litzateke; izan ere, Nafarroako Gobernuak erabat saihesten du xedapen bat, zeinaren bidez, foru legea indarrean sartzean itunak aldatu egin beharko bailirateke, foru legean ezarritakora egokitze aldera.

Hau da Hezkuntza Departamentuaren politika eta jarduketegi gehitu ahal zaien azken gertakarietako bat; izan ere, departamentuaren jokabidearen ezaugarri da Nafarroako hezkuntza publikoaren garapen eta hobekuntzarekiko utzikeria eta interes falta etengabea. Utzikeria eta interes falta hori zehazten da finantzaketa eskasean, giza baliabideen eta baliabide materialen murrizketan, inoiz ebaluatzen ez diren eta irakasleei lan-zama gehigarria ematen dieten programa eta proiektuak abian jartzean, lanpostuak salbuespenezko prozeduren eta zuzeneko izendapenen bitartez betetzean, irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza eskasean, eta irakaskuntza sistema publikoaren bidezko hezkuntzaren helburuei erantzuten ez dien eskola-antolamendu batean.

Horregatik guztiatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten du Hezkuntzako kontseilari José Iribas jaunaren kudeatze-lana, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuan dituen eginkizunak betetzeko moduari dagokionez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da parte har dezan Lázaro Echeverría enpresaren lan-gatazkan.**

*SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita parte har dezan Lázaro Echeverría enpresaren lan-gatazkan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-talde eta foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Iragan martxoaren 6an, “Lázaro Echeverría” enpresaren harrobietako eta hormigoi lantegiko produkzioko 25 langileek greba mugagabe bat hasi zuten Altsasun eta Ziordian, sei langileren kaleratzea eta lan baldintzen funtsezko aldaketa dela-eta. Enpresak neurri hori hartu zuen alde aurretik Nafarroako Gobernuaren aurrean enplegu-erregulazioko espedienterik izapidetu gabe, neurri hain gogorren ekarpena arrazoiekin justifikatuko zuenik.

Langileek eskatzen dute beren lankideak berriro hartzea –horietako batzuek 35 urtetik gorako antzinatasuna zuten–, edota haiei 45 eguneko kalte-ordaina ematea lan egindako urte bakoitzeko. Eskakizunetako beste bat da enpresak erretiratzea proposatu duen lan baldintzen funtsezko aldaketa (soldaten % 10eko jaitsiera eta lanaldiaren aldaketa), bai eta hitzarmen kolektiborako proposamena negoziatzea eta langileen eta enpresaren lasaitasuna ziurtatzeko formulak aztertzea ere.

Greba hasi zenetik hiru hilabete betetzera doazenean, ikusi dugu ez dela aurrerapenik egin elkarriketak hasteari eta enpresaren eta langileen jarrerak elkarri gerturatzeari dagokionez. Enpresa ez zen aurkeztu martxoaren 18ko astean eginiko adiskidetze-ekitaldietara, eta gatazka ez aurrera ez atzera geldituta dago.

“Lázaro Echeverría” enpresa garrantzitsua da azken urteotan krisiaren eragina modu latzean pairatzen ari den Sakanako eskualdean. Eskualde horretako langabeziaren zifrak kezkarriak dira; hori dela eta, etorkizun zalantzarriaren aurrean –batzuek “basamortutze industrialaz” hitz egiten dute jadanik–, inoiz baino beharrezkoagoa da salbuespenezko neurriak hartzea eta beharrezkoak diren zuzemenak egitea herriko enpresentzako irtenbideak aurkitze aldera, familia asko baitira enpresa horietatik bizi direnak.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren bidez parte-hartze aktiboa izan dezan lan gatazka horretan, egungo blokeo egoera bideratzeko irtenbide bat bilatze aldera elkarrekin.

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba, Bikendi Barea Aiestaran, Txentxo Jiménez Hervás, José Miguel Nuin Moreno eta Manu Aierdi Olaizola

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak erretira ditzala Hipotekek Kaltetutakoen Plataformako zenbait kideri jarritako zehapenak eta isunak.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak erretira ditzala Hipotekek Kaltetutakoen Plataformako zenbait kideri jarritako zehape-

nak eta isunak, eta behar diren urratsak egin daitezela guztion eskubideak zaintzeko; etxebizitza duina izateko eskubidea ez ezik, ideiak libreki adierazteko eta modu baketsuan biltzeko eskubidea ere, horregatik jazarpenik pairatu gabe.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroak erabateko elkartasuna erakusten duela, bere foru araubidearen bitartez, Espainiako gainerako autonomia erkidegoekiko.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du, beste behin, Nafarroak erabateko elkartasuna erakusten duela Espainiako gainerako autonomia erkidegoekiko, Foru Araubidetik heldutako tresnen bitartez.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren autogobernuarekiko eta berezitasunarekiko konpromisoa adierazten du, bai eta Foru Komunitatearen

eskubide historikoekiko konpromisoa ere, zeinak Espainiako Konstituzioan jasota baitaude.

3.- Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko dituen kargudun politiko batzuek eginiko adierazpenak, zeinetan zalantzan jartzen baita Nafarroaren elkartasuna, eta errefusatzeko dituen, halaber, Foru Araubidearen tresna berekien aurkako eta, bereziki, hitzarmen ekonomikoaren aurkako erasoak ere.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## Adierazpen instituzionala, “Wert legea arbuiatzeko hamar arrazoi” izeneko manifestuarekin bat egitekoa.

### ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bat egiten du parlamentu-taldeek eta gizarte-entitateek Diputatu Kongresuan 2013ko ekainaren 13an izenpetutako “Wert legea arbuiatzeko hamar arrazoi” izeneko manifestuarekin. Eranskin gisa jarri dugu manifestu hori.

2.- Nafarroako Parlamentuak erabaki du atxikipen hau igortzea manifestua sinatu duten parlamentu-taldeei eta gizarte-entitateei.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### WERT LEGEA ARBUIATZEKO HAMAR ARRAZOI

1. Gobernuaren ezintasuna, hezkuntzaren arloan adostasun bat bilatzekoa, gure hezkuntza sistemari egonkortasuna ematekoa. Hezkuntza komunitatea eta mintzakide sozial eta politikoko gutxietsi dira, zeren eta ez baita sekula haien kontatu, ez bada lege proiektuarekiko haien atxikipena eskatzeko.

2. Hezkuntza sistema hobetzeko nahikari zilegiak tresna huts bihurtzen ditu, kontra-erreforma segregatzaile eta interbentzionista bat inposatzeko. Kontra-erreforma hori ez da baliagarria hezkuntzaren benetako arazoei konponbidea emateko.

3. Ez du oroitidazki ekonomiko sinesgarri eta behar adinakorik, eta Europaren zalantzazko finantziario baten pentzudan uzten du erreformak sortzen dituen kredituen estaldura.

4. Aukera-berdintasunaren printzipioa urratzen du, segregazio goiztiarra eragiten baitu, rankingak argitaratzeko aukera ematen baitu eta zailtasunak dituzten ikasleen bazterketa errazten baitu.

5. Errebalida-sistema bat sustatzen du, zeinak heziketa-eraginak eduki beharrean zigor-eraginak

izanen baititu, eta horrek irakasleekiko mesfidantza bultzatzen eta ikasleen prestakuntza integrala mugatzen du.

6. Lanbide Heziketaren sistema debaluatzen du, hain zuzen bultzada eta babesa behar duenean, eta ikasgaien sailkapen arbitrarioa antolatzen du, antolamendu akademiko inkongruente eta antipedagogiko batekin, zeinak curriculumetik kanpo uzten baititu heziketa arlo garrantzitsuak; besteak beste, Herritartasunerako Hezkuntza eta ikasleen heziketa integralerako ezinbestekoak diren beste batzuk.

7. Hizkuntza berekia duten autonomia erkidegoen aniztasun linguistikoa ukatzen du, eta heziketaren amaieran katalanaren eta gaztelaniaren ezagutza bermatzen duen murgiltze linguistikoa-aren ereduaren aurka jotzen du, eredu hori Kataluniako kohesio sozialerako eta bizikidetasun linguistikorako funtsezkoa izan den arren.

8. Hezkuntzaren birzentralizatzea inposatzen du, eskumen-banaketaren aldaketa bultzatzen baitu, eta Estatuko gobernuari egiturazko arlo bartzuen gaineko erabateko kontrola ematen dio, bai eta curriculum eta errebalida berriak zehazteko gaitasun handiagoa ere.

9. Hezkuntza komunitatearen parte-hartzea mugatzen du, eskola kontseiluak eskumenik gabe uzten baititu, eta zentroen autonomia interbentzionista bat bultzatzen du, langileen lan baldintzei dagokienez.

10. Gure hezkuntza sistema publikoaren ekitate frogatua urratzen du, kalitatea hobetu gabe, eta hezkuntza eredu elitista eta ekonomizista bat ezartzen du, estatu akonfesional bati ez dagokiona.

Aurreko guztia dela eta, erakunde sozial eta politiko sinatzaileek honakoa exijitzen dute:

1. Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko lege organikoaren proiektua erretira dadila.

2. Hezkuntza Ministerioarekiko egiazko negoziario eta elkarrizketa prozesu bat ireki dadila.

## **Adierazpen instituzionala, “adituek” pentsioen erreformari buruz ateratako ondorioen inplementazioa arbuiaitzekoa.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak arbuiaitzen du “adituek” pentsioen erreformari buruz ateratako ondorioen inplementazioa, ekainaren 7an ezagutu zena, bai eta horrek Nafarroako herritarren eskubi-deetan eta haien ekonomian izanen duen eragin bidegabea ere.

2.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du sakon aztertu nahi dituela gure herritarrentzat bidezko pentsioak bermatzea bideratuko duten beharrezko formulak eta lege-aldaketak eta aldaketa juridikoak “:

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baititu pintadak eta sistema demokratiko baten adierazpen-bideetatik eta bizikidetasun zibikotik aldentzen den edozein ekintza edo bitartekoren erabilera.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu pintadak eta sistema demokratiko baten adierazpen-bideetatik eta bizikidetasun zibikotik aldentzen den edozein ekintza edo bitartekoren erabilera, Nafarroako gizartea ordezkatzen duen erakundearekiko, herriarengandik datozen erakunde guztiekiko eta ondasun publiko zein pribatuekiko errespetu falta, gutxiespen eta eraso nabarmena dena.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, 1.500 metro koadrotik gorako azalera duten saltokiei buruzkoa.***MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 1.500 metro koadrotik gorako azalera duten saltokiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakariorde Lourdes Goicoechea Zubelzu andreak, 2013ko ekainaren 11n saltoki handien gaineko zergari eta hura Nafarroan ezartzeari buruz eginiko agerraldian,

nabarmendu zuen interpretazio-gatazka bat, zergaren xede diren saltoki handien ezaugarriei buruzkoa. Nafarroako Gobernuak, azkenik, "interpretazio-irizpide gramatikal, logiko, historiko, sistematiko eta teleologikoetan oinarrituta" hautatu duen interpretazioak 16 saltoki handitara mugatzen du zergaren ezarpena, eta, aldiz, 1.500 metro koadrotik gora dituzten saltokien kopuru oso handia salbuesten du zergaren aplikaziotik.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

1.- Zenbat saltoki, 1.500 metro koadrotik gora dituztenak, geratu dira salbuesita Nafarroako Gobernuak eginiko interpretazioaren ondorioz?

2.- Zenbatekoa izanen zatekeen saltoki handien gaineko zergaren bidezko diru-bilketa, salbuesitako saltoki handi horiek zergapetzeko modukotzat jo izan balira?

3.- Jaso nahiko genuke txosten juridikoa, zein Nafarroako Gobernuak oinarritzen baitu aipatu 1.500 metro koadrotik gorako saltoki horien salbuespena, "interpretazio-irizpide gramatikal, logiko, historiko, sistematiko eta teleologikoetan oinarrituta".

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak PFEZaren aitorpena dela-eta eginiko itzulketei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak PFEZaren aitorpena dela-eta eginiko itzulketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

PFEZaren aitorpena dela-eta Nafarroako Gobernuak zergadun nafarrei eginiko itzulketen harira, foru parlamentari honek hau jakin nahi du:

1.- Egutegiaren arabera zerrenda bat, PFEZaren aitorten-kanpaina hasi zenetik galdera hau jasotzen den egunera bitartekoa, egunez egun eginiko itzulketen zenbateko osoena.

2.- Herritarrei egin beharreko itzulketak ahalik eta gehien ez aurreratzeko arrazoiak, familiek likidezia izan dezaten.

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, PFEZaren kanpainen zergaren zenbatekoaren zati baten xedea (Eliza Katolikoa edo helburu sozialak) aukeratzekoan izandako arazoei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, PFEZaren kanpainen zergaren zenbatekoaren zati baten xedea (Eliza Katolikoa edo helburu sozialak) aukeratzekoan izandako arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako herritarrek PFEZaren aitorpena egin ahal izateko Nafarroako Gobernuak prestatutako programa informatikoak direla-eta, parlamentari honek hau jakin nahi du:

1.- Arazorik egiaztatu al da zergaren zenbatekoaren zati baten xedea (Eliza Katolikoa edo helburu sozialak) aukeratzeari dagokionez?

2.- Hala bada, zer arazo izan dira?

3.- Hala bada, zein herritarrengan izan du eragina?

4.- Kasua bada, herritarrek erabakitzekoa den funts-banaketa hori zuzentzeko zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak arazo horiek konpon-tze aldera?

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## **Galdera, jakitekoa 2013ra luzatutako aurrekontuen legeak sortutako egoerak eraginik duen Nafarroako Gobernuaren pentsiodunengan.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa 2013ra luzatutako aurrekontuen legeak sortutako egoerak eraginik duen Nafarroako Gobernuaren pentsiodunengan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iraganean Nafarroako Gobernuarentzat lan egiten zuten pentsiodunak direla-eta, foru parlamentari honek hau jakin nahi du:

1.- Ba al du eraginik pentsio horietan, batez ere haien igoerari dagokionez, Nafarroak egun bizi duen egoerak, hau da, 2013rako aurrekontuen legea luzatutako lege bat izateak, 2013rako berriazko aurrekontuen lege bat onesteko Gobernuak beharrezkoak diren adostasunak sortzeko duen ezgaitasunaren ondorioz?

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroak aurten bete beharreko defizit-helburuari buruz Estatuarekin gauzatzen ari den negoziazio-prozesuaren gainekoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroak aurten bete beharreko defizit-helburuari buruz Estatuarekin gauzatzen ari den negoziazio-prozesuaren gainekoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroaren 2013rako defizit-helburua zehazteko Estatuarekiko negoziazioaren harira, jakin dugu, azkenik, Nafarroako Gobernuak uko egin diola Estatuko administrazioek berentzat hartzen duten defizit-helburu bera defendatzeari. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Zer argudio ekonomiko, juridiko, politiko eta historikorekin justifikatzen du Nafarroako Gobernuak uko egitea Nafarroari dagokion berdintasunezko eta aldebiko tratua eskatzeari, berezko ogasuna duen aldetik, Estatukoaren baldintza beretan?

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro